

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA KANALA

Diru sarreretan aipatuko dugun bezala, gustatuko litzaiguke Kiwokorekin patrozioa izatea. Kiwokoko produktuak publizitatuko ditugu diru kantitate baten ordean, Kiwokoko produktuetan QR bat agertuko da gure aplikaziora birbideratuko duena, horrela finantziakzioa lortzea arren promozioa ere lortuko dugu.

Hasiera emateko, gure aplikazioaren QR-a daukaten panfletoak autobus geltokietan, faroletan, etab jarriko ditugu. Ezagutzen dugun sare sozial guztietan (Whatsappeko kanalak, Instagram, TikTok, Telegram, Facebook eta YouTube) kontu bat egingo dugu gure aplikazioa promozionatzeko publikazioen eta bideoen bidez. Ikusentzunezko edukiak sortuko ditugu eta egituratuta egongo da. Hau izango da egitura: Lehenengo aplikazioa erabiltzeko tutorial bat agertuko da, gero animalien oinarritzko zaintzarako aholkuak agertuko dira, elikatzerakoan kontuan hartu behar diren “tips”-ak, hots, aholku laburrak baina bere biziko garrantzia bermatzeko.

APP-aren barruan, zuzeneko txata izango dugu gure bezeroek daukaten galderak eta arazoak argitzeko. Halaber, denda fisiko bat ireki ahal dugu horrela bezeroek informazioa eskatu ahalko dute, horrela baita animalien trukea errezago egin ahal izango da. Honekin batera, denda fisikoaz gain, telefono zenbaki bat izango dugu eta dendan lan egiten dagoen pertsonak deia erantzungo du.

Animalien inguruko azoketan, hau da, animalien lehiaketa, janaria, zaintza, etab. gure aplikazioa promozionatzeko salmahai bat jarriko dugu. Han gure aplikazioaren QR daukaten panfletoak, gure aplikazioaren buruzko informazioa, gure kanal birtualetan ematen dugun aholkuak, etab. eskainiko ditugu.